

6. GAIA.- UDA KANPAINA. ARAUTEGIA ETA JARDUERAK

UDA-2019 KIROL JARDUERETAKO KANPAINA

1.- Kanpainaren helburua:

UDA-2019 Kirol Jardueretako Kanpaina udako garaian kirol praktika sustatzeko diseinatuta dago, batez ere, eskola-ume eta gazteen artean, gutxien praktikatzen diren kirol modalitateak, urtean zehar gutxi praktikatzen direnak edo ingurumenari lotuta dauden kirol modalitateen bitartez. Era berean, kirol klubek jolas izaerako jardueretako antolakuntza sustatu nahi da, eta bere egituren finantzaketari lagundu ere.

2.- KUPen Kanpainarekiko funtzioak eta konpromisoak.

KUPek Kanpaina honen inguruan duen funtzioak hauek dira: kirol eskaintza koordinatu, hiritarren artean sustatu, diru-laguntzen bitartez lagundu, jardueretako garapenean klubekin elkar lagundu eta hiritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea bermatu. Horretarako, KUPeK:

- Eskaintzaren koordinazioa egingo du, jardueretako programa bakar bat prestatuz.
- Eskaintzaren sustapena egingo du, liburuxka baten argitalpena, prentsa oharra eta prentsaurrekoa egitearen bidez, baita bere web orrian eskaintza jarri. Era berean, KUPen bulego zein instalazioetara hurbiltzen diren hiritarrei informazioa egokia emango die.
- KUPek Kirol ekartearen eskura aplikazio-informatiko berezia jarriko du kanpainaren kirol jarduerak kudeatu ahal izateko.
- Jardueretako on-line izen-emate prozesua herritarrei errazteko, beharrezko baliabideak sortuko eta jarriko ditu.
- Kirol klubek antolatutako jarduerak diruz laguntzeko behar diren tresnak jarriko ditu.
- Gainera, Jardueretako Programa honetan sartuta dauden kirol jarduera guztiak kirol praktikak daukan arriskuak estaltzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak daukan aseguruaren barne egongo dira.

3.- Kanpaina osatzen duten jarduerak

Kanpaina honen barruan sartu ahal izango diren jarduerak dira zirkular honekin doan II. eranskinean azaltzen direnak (diruz lagundu daitezkeen bakarrak izango dira); halere, beste kirol jarduerak klubek aurkezten baldin badituzte, eta interesgarriak eta kanpainak dauzkan helburuekin bat egiten badute, programan sartzeko aukera egongo da ere.

Programaren barruan sartuko diren jarduerak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Donostiako udalerrian egin behar izango dira.
- II eranskinean adierazten diren jardueren artean egon beharko dira
- Beste jarduerak ere sartu ahal izango dira, interesgarritzat jo izanez gero eta kanpainak dauzkan ezaugarri eta helburuekin bat egiten badute. Ez dira onartuko urtean zehar eskaintza handia daukaten jarduerak, adibidez: futbola, saskibaloia, eskubaloia, arte martzialak eta mota horretako jarduerak.

- Jarduerak ikastaro moduan antolatu beharko dira, 7,5 ordutako gutxienerako iraupena izan behar dutela.
- Eskaintza bi kategorietan sailkatu beharko dira: Eskola-umeak (16 urte bitartean) eta Gazteak-Helduak (17 urtetik aurrerakoak). Eskola-umeei zuzendutako ikastaroetan ikasleen garapen prozesua errespetatu dezaten talde homogeenak sortzeko ahalegina egingo da.
- Era berean, klubak bermatu beharko dituzten ikastaroak ematen dituzten monitoreen egokitasuna eta gaitasuna.
- Jarduera guztiak programatu beharko dira 2019ko ekainaren 24 eta irailaren 8ko epealdiaren barruan.
- 16 urte baino gutxiagoko eskola-umeei zuzendutako modalitate guztietako jardueren %50a euskaraz emango direla bermatu beharko dute klubek. Aldi berean, gazte eta helduei zuzendutakoetan %25a izan beharko da. Kasu guztietan, ikastaro hauetan hizkuntza horretan emango direla bermatuz. **Hau beteko ez balitz, UDA kanpainari dagokion diru-laguntza galduko da. Horretaz gain, klubak hurrengo kanpainetan parte-hartzeko eskubidea gal lezake.**

4.- Antolakuntza eta administrazioari dagozkion aspektuak.

Izen-emate prozesua:

- Maiatzak 6tik-9ra. Aurre izen emate epea (internet)
- Maiatzak 10ean. Ikastaroen zozketa eta esleipena
- Maiatzak 13tik-16ra. Esleitutako ikastaroen ordainketa
- Maiatzak 17ean. Plaza librearen argitaratzea (internet)
- Maiatzak 27an. Izen-emate fasearen hasiera (internet+klubeetan)

Kanpainian parte hartzen duen klub guztiek aurre izen-emate prozesuan parte hartzearen konpromezua hartuko dute.

Beste alde batetik, klubek izango dira arduradunak izen-emate eta kuoten jasotze lanak egiteko, eta behar den pertsonal teknikoa eta material zein instalazioak jartzeko ere.

Zentzu horretan, klubek izen-ematearen dirua itzuli beharko dute, baja eskatzen bada, gutxienez, ikastaroa hasi baino 21 egun lehenago.

KUPak zuzenean kudeatzen diren kirol instalazioak erabili nahi izango duten klubek, instalazioetara taldeen sarrera antolatzeke arautegi berezia igorriko zaie.

Instalazio bereberetan bi klubek edo gehiagok eskaintza berbera egingo balute, ondorengo irizpideak hartuko lirateke:

1.- Eskatutako instalazioan urtean zehar eskainitako jarduera aurrera eramaten duen klubak lehentasuna izango du.

2.- Aurreko puntuan bi klubek batera eskatuko balute, aurreko urteetan UDA programa aurrera eraman duen klubak lehentasuna izango luke.

Zurriola hondartzan egiten diren ur jarduerak aurrera eramateko, Donostiako Udalaren Hiri mantentze eta zerbitzuen Zuzendaritzak garatutako araudia espezifikokoaren bitartez (erabili daitezkeen ur eremuak, plaza kopurua/orduko, irakasle/ikasle ratioa, baimenak, jazkera bereizgarria, etab). Ur eremuaren segurtasun neurriak bermatu ahal izateko, aipatutako Hondartza Zerbitzuak baimentzen duen Klub kopurua onartuko da (aurreko 2 irizpideak kontuan izanik, behar izanez gero). Parte hartu nahi duen klub guztiek araudi hau bete beharko dute. **Hau beteko ez balitz, UDA kanpainari dagokion diru-laguntza galduko da. Horretaz gain, klubak hurrengo kanpainetan parte hartzeko eskubidea gal lezake.**

5.- Kanpainan parte hartzeko eskaerak

Kanpaina honetan parte hartzeko interesa duten klubek, bidali beharko dute bere eskaera eta kirol jardueretako eskaintza **2019ko otsailaren 28a baino lehen**, behean agertzen den web lekuaren bitartez. Bertan adierazi beharko delarik izen-emateak egiteko lekua, ikastaroen datak, ordutegia eta prezioak, informaziorako telefonoa, harremanetarako pertsona eta telefonoa...

II. ERASKINA/ANEXO II

UDA 2019-KANPAINAN ANTOLATU DAITEZKEEN KIROL JARDUERETAKO ZERRENDA

RELACION DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS QUE PUEDEN ORGANIZARSE EN LA CAMPAÑA UDA-2019

Arkuzko tiroketa/Tiro con arco

Xake Jokoa

Arrantza/ Pesca

SUP- Surf arrauna/Surf a remo

Arraunketa/Remo

Atletismoa/Atletismo

Beisbola

Bela/Vela

Bizikleta triala/Trialsin

Bodyboard

Errugbia/Rugby

Esgrima

Eskalada

Hipika/Hípica

Hockeya

Hondartza bolea-baloia/Volei-playa

Hondartza errugbya/rugby-playa

Igeriketa/Natación

Irristaketa/Patinaje

Jarduera-Anitza /Multideporte

Kirola eta natura/Actividades en la naturaleza

Mahai tenisa/Tenis de mesa

Mendiko bizikleta/ Bici de montaña

Pádel

Pilota

Piraguismoa

Skate

Surfa

Tenisa

Triatloia

Uretako jarduerak/ Actividades acuáticas

Urpeko jarduerak/Actividades.

Subacuáticas

Water poloa